Por último y respecto a las licencias de obras, la concejala Sra. Remiro comenta que en la sesión anterior se le dijo que se hace resolución de todas pero por ejemplo cuando una vecina o un vecino recibe un importe de un ício que tiene que abonar no hay resolución de alcaldía, eso es porque hay obras menores que se tramitan de otra forma, porque no aparece la resolución, contesta la Secretaria que no puede aparecer resolución de concesión de licencia porque esas resolucioens las dan los concejos, lo que hace el Ayuntamiento es emitir un informe favorable o desfavorable que entrega al concejo para que éste resuelva

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión siendo las 20,00 h. del mismo día, de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2023ko otsailaren 15eko 17:30ean, Erroibarko Udala bildu zen bilkura berezia egiteko, lehen deialdian. Bertaratuak: Jose Maria Eciolaza Ochoa, Teresa Bidaurreta, Juan Luis Fermin Gil Garcia, Miren Nekane Nuño Iturri, Ainara Ekisoain Erro eta Leire Remiro Esnoz zinegotziak, bilkura buru alkatea, Enrique Garralda Erro, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Gai zerrendari ekin baino lehen Haize Morea taldeko Remiro zinegotziak, Remiro, eta alkateak, Garralda, bilkura grabatuko dutela jakinarazi dute.

### **1.- 2022KO ABENDUAREN 21EKO ETA 2023KO URTARRILAREN 26KO BILKURETAKO AKTAK ONESTEA**

Aho batez erabaki da 2022ko abenduaren 21eko akta onestea.

Aho batez erabaki da 2023ko urtarrilaren 26ko akta onestea.

Idazkariak jakinarazi du abenduko aktan, ikasketen ebazpenari dagokion zatian, lagunza ukatu zitzaien bi pertsonak gehituko dituela.

### **2.- 2022ko ABENDUAREN 17tik 2023ko OTSAILAREN 10a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Garralda alkateak 2022ko abenduaren 17tik 2023ko otsailaren 10a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du. Zinegotziak jakinaren gainean daude.

### **3.- BIZKARRETA-GERENDIAINGO 8-EUAN SONIA REYK ETA ASIER AUBANEK SUSTATUTAKO IJPB (Zehaztapen xehatuen aldaketa). HASIERAKO ONESPENA.**

Garralda alkate jaunak jakinarazi du Sonia Reyk eta Asier Aubanek sustatutako aldaketa-proposamenak egikaritze-unitatearen mugaketa aldatzea planteatzen duela, egungo 479 partzelaren mugara egokitze, 982,20 m<sup>2</sup>-ko azalerarekin, unitatearen mugak partzela bakarrera egokitze eta, bestalde, bitan zatitzeko, etorkizuneko garapen baterako. Lagapenerako aurreikusitako azalera bide-partzelari gehitu zitzaion (40,12 m<sup>2</sup>). Era berean, UE8 bi unitate berritan banatu nahi da: UE8.1 (475 m<sup>2</sup>) eta UE8.2 (507,20 m<sup>2</sup>).

Aldaketak planteatzen du, halaber, familia bakarreko bi etxebizitza independenteren etxebizitza-kopurua handitzeko aukera, etxebizitza 1 edo 2 izango dituzten bi eraikinetara eta gehienez 4 etxebizitza izanen dira, gehieneko okupazio-baldintzak (0,25 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>) eta eraikigarritasuna (BS+1+Entreplanta, gehienez ere 7,50 m-ko teilatu-hegala) aldatu gabe.

Hirigintza-fitxa berria aurkeztu da unitate bakoitzerako, eta adierazi da borondatezko birpartzelazioaren edo konpentsazioaren bidezko jarduketa-sistema ez dela aldatzen.

HJPB baten izapidetza justifikatzen da, Egikaritze Unitatearen zehaztapen xehatuak aldatu nahi direlako, Unitatearen mugaketa berri bat planteatzen delako eta mugaketa hori beste bi zatitan banatzen delako.

Udal arkitektoak informe faboragarria egin du eta honakoak adierazi ditu:

- A) Proposatutako Hiri Jarduketarako Plan Bereziaren helburua egikaritze-unitatearen mugaketa, etxebizitza-kopurua eta lerrokadurak aldatzea da, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 49.3 artikulua hirigintza-zehaztapen xehatuen aldaketa da, 77.6 Hiri Jarduketarako Plan Berezi baten bidez izapidetu behar da.
- B) 2003. urtean onartu zenetik, Udal Planak planteatutako Egikaritze Unitatea ez da orain arte garatu. Unitatearen mugaketa aldatzeko proposamena justifikatuta dago, batetik, errealtitate fisikoa katastroko kartografiara egokitu nahi delako, eta, bestetik, eremuak jabe bakar bati bakarrik eragin diezaion, eta horrek Unitatearen garapena errazten du.
- C) Proposamen berriak EUan aurreikusitako lerrokaduren antzekoak ezartzen ditu: 2 m lursailaren iparraldeko mugan, 7 m hegoaldean, erreviderantz, eta 3 m ekialdean eta mendebaldean unitate berri bakoitzetik.
- D) Familia bakarreko tipologia isolatua familia bakarrekoa/bi familiakoa edo kolektiboa izatera aldatzea justifikatuta dago benetako eskariaren aurrean eskaintza askotarikoa delako, okupazio- eta eraikigarritasun-baldintzak aldatu gabe.
- E) Proposamen berriak etxebizitza-kopurua handitzea ahalbidetzen du, eta, beraz, egokia dirudi partzelen barruan aparkatzeko espazioaren erreserba egitea, bai eraikinaren barruan, bai lurzatiaren gainerako lurzoruan.
- E) HJPBaren edukiari dagokionez, dokumentuak indarrean dagoen plangintzaren zehaztapenak eta proposamenak jasotzen ditu, proposatutako aldaketa urbanizazioa berritzeko edo eraberritzeko jarduketa gisa identifikatzen du, bideragarritasunari eta iraunkortasun ekonomikoari buruzko memoria jasotzen du, eta partaidetza-prozesuaren ondorio baloratuak jasotzen ditu. Edukia nahikoa dela uste da.
- G) HJPBak jarduketa-sistema aldatzen ez badu ere (borondatezko birpartzelazioa), nahikoa izango da lurzati eraikigarria bitan banatzea, sortutako unitate bakoitzaren mugaketarekin bat etorriz.

Sonia Reyk eta Asier Aubanek sustatutako hirigintza-araudia aldatzeko proposamenarekin ados daudenez, eta udal-teknikariaren txostena aintzat hartuta, Udalbatzak aho batez erabaki du:

- 1.- Sonia Reyk eta Asier Auban Errok sustatutako Erroibarko Udal Planaren Aldaketa Puntualari hasierako onesprena ematea, Bizkarreta-Gerendiaingo UE-8 Egikaritze

Unitatearen zehaztapen xehatuak aldatzeko, Hiri Jarduketako Plan Berezi bat izapidezuzendu zen, datan aldaketarik egin gabe).

2.- Jendaurrean jartzea hilabeteko epean eta argitara ematea.

3.- Alegaziorik egon ezean behin betiko onestea.

Hori guztia, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77. eta 72. artikuluetan adierazitako prozeduraren arabera.

#### **4.- ERROKO ESKOLA BERRITZEKO LANEN MEMORIA ETA DIRULAGUNTZA ESKATZEA ONARTZEA**

Garralda alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du ikastetxe publikoak hobetzeko laguntzen deialdia argitaratu dela (abenduaren 29ko 368E/2022 EBAZPENA), Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiarena, bai eta laguntza horietara aurreko urteko deialdian aurkeztutako obrak jasoko zituen memoria aurkezteko eskolako zuzendaritzak egindako eskaera ere. Nasuvinsari eskatu zaio memoria eguneratua prestatzea.

Udalbatza osoa ados egonik, aho batez erabaki da:

1.- Dirulaguntzak eskatzea Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe mistoak hobetzeko eta birmoldatzeko obren proiektuak gauzatzeko Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuentzako dirulaguntza deialdian.

2.- NASUVINSAk idatzitako memoria baloratua onartzea eta Erroko Eskola Publikoa birmoldatzeko eta eraberritzeko lanak egitea. Horren kostua honakoa da: 10.639,22 €, gehi 90 € memoria egiteko, gehi 2.100,00 € proiektua eta obra zuzendaritzarengatik, gehi %21 BEZA.

- Biltegia egitea

Kontrataren aurrekontua: 6.098,42 €

Proiektua eta zuzendaritza 2.100,00 €

Memoria baloratua 60,00 €

- Leiho oszilobatientea jartzea

Kontrataren aurrekontua: 4.540,80 €

Memoria baloratua 30,00 €

Obren kontratuaren aurrekontua 10.639,22 € da (BEZ kanpo).

Memoria baloratua idaztea 90 € (BEZ kanpo).

Biltegia egiteko proiektua eta zuzendaritza 2.100 €(BEZ kanpo)

3.- Abenduaren 29ko 368E/2022 Ebazpenean oinarritura, dagokion diru-laguntza eskatzea, eskatutako dokumentazioa garaiz eta behar bezala aurkeztuz.

4.- Abenduaren 29ko 368E/2022 Ebazpenean jasotako oinarriak betetzeko konpromezua hartza, Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuentzako diru-laguntzen deialdiari buruzkoa, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe mistoak Lehen Hezkuntza-DBH hobetzeko eta birmoldatzeko obren proiektuak gauzatzeko.

5.- Udalaren aurrekontuetan diru-hornidura nahikoa izateko konpromisoa, eskatutako diru-laguntzaren xede den obraren kostu osoari aurre egiteko.

#### **5.- DERRIGORREZKO EZ DEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN GARRAIOA ADJUDIKATZEKO PROPOSAMENA BERRESTEA**

Garralda alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du kontratacio mahaiak dokumentazioa ireki ondoren derrigorrezko ez den hezkuntzako ikasleen garraioa taxilari hauei adjudikatzea proposatzen duela: Jose Fermin Ventana Lipuzcoa, Josu Etxanobe Arrieta, Juan Ignacio Ayarra Ilintxeta eta Mikel Etxarri Elizalde.

Idazkariak hartu du hitza, eta jakinarazi du Proiektu Estrategikoetako Departamentuko mezu bat iritsi zaiola, Udaletik bidalitako zerbitzuaren kostuen datuei dagokienez (65.909,06 euro gehi BEZA), eta Proiektu Estrategikoetatik emango den lagunza 60.000 eurokoa izango dela. Kostua, guztira, 71.000 euro ingurukoa izango da. Gainera, ikusi da esleipendunetako batek faktura bat aurkeztu duela esleitutakoa baino kostu handiagoarekin, eta, beraz, baliteke Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin eta oraindik behin betiko zenbatekoa ez dakigun gurasoen ekarpenarekin gastuaren guztizkoa ez estaltzea, eta udalek differentzia hori beren gain hartu behar izatea. Proiektu Estrategikoekin hitz egin beharko da, defizita egonez gero, defizit hori nola eta nork bere gain hartzen duen ikusteko; izan ere, hasiera batean, Proiektu Estrategikoen sailak gastu guztia bere gain hartzeko konpromisoa hartu zuen. Dena den, informazioa emanen da.

Kontratacio mahaiak obren adjudikazioari buruz egin dituen proposamenak berrestea erabaki da aho batez.

1.- 1 Lotea-2 ibilbidea: José Fermín Ventana Lipúzcoa, 7.636,36 eurotan (BEZ kanpo)

2 Lotea-1 ibilbidea: Josu Etxanobe Arrieta, 7.563,64 eurotan (BEZ kanpo)

3 Lotea-3 ibilbidea: Juan Ignacio Ayarra Ilinchieta, 22.218,18 eurotan (BEZ kanpo)

4 Lotea-4 ibilbidea: Mikel Etxarri Elizalde eta Jose Fermín Ventana Lipúzcoa, 1.818,18 eurotan (BEZ kanpo)

2.- Adjudikaziodunei adjudikazioaren emaitza jakinaraztea, horren jakitun izan daitezen eta dagozkion ondorioetarako.

## **6.- EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNEKO ERAKUNDEEN DEKLARAZIOAREN ONARPENA.**

Garralda alkateak hitza hartu du eta esan du emakumeen nazioarteko eguna laster ospatuko denez, UPEFak adierazpena prestatu duela eta onartzea proposatu du.

Remiro zinegotzi andreak hartu du hitza, eta adierazi du, Udalak onartuko duen eta atxikiko den adierazpen horren harira, bere puntuatko batean esaten baita interesgarria dela kargu politikoek gai horri buruzko prestakuntza jardueretan parte hartzea, udalak edo mankomunitateak edo jarduera-protokoloaren mahai teknikoak antolatuak.

Udalatzak erabaki du aho batez EUPFak idatzitako erakunde adierazpena onartzea.

### ***ADIERAZPEN INSTITUZIONALA***

#### ***MARTXOAREN 8a, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA.***

*Aurrerapen anitz lortu dira, baina oraindik ere desberdintasunak, diskriminazioa eta emakumeen aurkako indarkeria daude, emakumeak izateagatik. Hori dela eta, ezin da modu epelean jokatu, eta ezin da ulertu neutralak izatea.*

*Martxoaren 8a Emakumeen Eskubideen aldeko Nazioarteko Eguna izendatu zuen Nazio Batuen Erakundeak 1975ean. Harrezkero, ospakizun-eguna da, historian zehar lortu ditugun aurrerapenengatik, eta errebindikaziokoa, bizitzaren esparru guztiaren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan lortu behar dugunagatik.*

*Zalantzak gabe, Spainia erreferentea da berdintasunaren arloan, eta gure arau-esparrua eredugarria da emakumeen eskubideen defentsa irmoa aitortzen diguten herrialde askorentzat, Genero Berdintasunaren Europako Indizean buru jarrita.*

*Aurten, zenbait sektorek, gizarte matxistan eskuratutako pribilegioetan mehatxatuta sentitzean, egin nahi duten zarata alde batera utzita, lortutako aurrerapen guztiak*

*sendotzeko beharra dagoela adierazi nahi dugu. Izan ere, emakumearen papera, oro har, alde batera utzi eta gutxietsi egin da historian zehar.*

*Ez ditugu kolektibo kalteberak ahaztu behar, non emakumeak askotariko diskriminazio-egoeretan dauden: emakume izateagatik eta desgaitasuna izateagatik, arraza edo etnia jakin batekoia izateagatik, adin jakin bat izateagatik edo hiri handietatik edo biztanleguneetatik kanpo bizitzeagatik eta lan egiteagatik.*

*Ildo horretan, landa inguruko emakumeak kontuan hartzen ditugu, baita despopulazioaren aurkako borrokarekin eta erronka demografikoarekin lotutako jardueren garapenean duten funtsezko zereginga ere.*

*Lanari dagokionez, lanaldi partzialeko lana, soldatu, produkzio-sektoreak, karrera profesionala eta abar bezalako adierazleen datuak ikusita, emakumeen lan-baldintzak gizonenak baino okerragoak dira, presentzia txikia baitute sektore profesional jakin batzuetan eta enpresa-zuzendaritzako karguetan.*

*Duela urte batzuk arte, pentsamendu orokorra zen emakumeen aurkako indarkeria norbanakoen eta eremu pribatuaren jarreren ondorio zela. Lortutako aurrerapenei eta gizartearen ikusgarritasun eta sentsibilitate handiagoari esker, kezken erdigunean kokatzea lortu da, arazo sozial kategoriarekin, botere publikoetatik berehalako erantzuna emateko betebeharrekin. Genero-indarkeriak desberdintasunaren alderik ilunena dira.*

*Toki-eremutik, berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko konpromisoarekin jarraitu behar dugu, pertsona guztien eskubideak eta tokiko bizitzan parte-hartze aktiboa bermatuko dituena.*

*Konpromiso horiek tokiko politikak diseinatzean eta kudeatzean gauzatu behar dira, gure gizartea eraldaketa-eragile bihur daitezen. Hori dela eta, tokiko gobernuek, EUPFan bilduta, Adierazpen honi atxikitzena gonbidatzen ditugu toki-erakunde guztiak, eta honako hau proposatzen dugu:*

*Enplegua, ahalduntzea eta aukera-berdintasunerako hezkuntza sustatzera bideratutako politiken garapenean ahaleginak areagotzea.*

- Tokiko jarduera osoan genero-ikuspegia txertatzea eta tokiko gobernuen arloen arteko koordinazio egokia ezartzear. Berdintasun-politiken garapenean jarduteko sistemak eta protokoloak eguneratzea, inplikatutako erakunde guztiekin koordinatuta.

*Datu bereiziak biltzeko sistemak planteatzea, genero-desberdintasunak ulertzeko eta horiei heltzeko, horiek aztertuta erantzun egokia eta eraginkorra eman ahal izan dezagun.*

- *Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztiak biktamei arreta emateko sistema zabaltzea, gure eskumenen esparruan, detekzio goiztarreko sistemen hobekuntzan aurrera eginez, neurri guztiak erdigunean biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea kokatuz, eta biktimen erreparazio-eskubidea aintzat hartuz.*
- *Bat egitea eta herriar guztiak gonbidatzea M8aren harira antolatutako ekitaldieta partea hartzen, bai eta berdintasuna aldarrikatzen duten eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka egiten diren ekintza eta ekimenetan parte hartzen ere.*

## **7.- TURKIAN ETA SIRIAN IZANDAKO LURRIKARAK UKITUTAKO GUZTIEN ALDEKO ADIERAZPENA**

Garralda alkate jaunak hartu du hitza eta Turkian eta Sirian gertatutako tragediaren ondoren, bi herrialdeetan gertatutako lurrikaren ondorioz, EUPFak adierazpen bat prestatu du, eta hori onartzea proposatu du. Horrez gain, batzordean aztertuko litzatekeen ekarpen ekonomiko bat egiteko aukera gehitu du.

Udalbatzak erabaki du aho batez EUPFak idatzitako erakunde adierazpena onartzea.

### **TURKIAN ETA SIRIAN IZANDAKO LURRIKARAK UKITUTAKO GUZTIEN ALDEKO ADIERAZPENA**

*Joan den otsailaren 6an, Turkiak eta Siriak Ritcher eskalako 7,8 eta 7,5 magnitudeko bi lurrikara jasan zituzten, epizentroa Gaziantep hirian zegoen eta hiri horren metropoli-eremuak 2 milioi biztanle baino gehiago ditu. Turkiako hegoaldean kalte handiak izan dira, besteak beste, Diyarbakir, Adiyaman, Osmaniye, Malatya eta Adana hirietan. Siriaren kasuan, Aleppo, Latakia eta Hama dira lurrikarak eragin dituen hiri nagusietako batzuk.*

*Lurrikarak milaka biktima eta zauritu utzi ditu, etxerik gabeko pertsona asko eta hirietako azpiegiturak kolapsatu ditu, eta egoera bereziki kritikoa sortu du, neguko tenperatura baxuek larriagotzen ari dena.*

*Europar Batasunak erantzun egin dio Turkiako agintariekin egindako nazioarteko laguntza-deialdiari, eta Babes Zibileko Europako Mekanismoa aktibatu du, estatu kideen nazioarteko laguntza koordinatzeko.*

*Espainiak, EBk ezarritako koordinazio-esparruan, Larrialdietarako Unitate Militarreko (UME) eta Madrilgo Erkidegoko Berehalako Erantzuneko Suhiltzaileen Taldeko (Ericam) kideak mobilizatu ditu, eta Garapenerako Lankidetzaren Espainiako Agentziako START Taldeko (Larrialdetan Laguntzeko eta Erantzuteko Espainiako*

*Talde Teknikoa) kanpainako ospitalea bidali du lurrikaren ondorio latzak arintzen laguntzeko.*

*Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak AECIDek deitutako lankidetza-lantaldean parte hartzeko deia jaso du, larrialdi-egoerari azkar eta eraginkortasunez erantzun ahal izateko, autonomia-erkidegoekin eta GKE humanitarioekin batera. Lehen bileran, atzo, lurrikaren ondorio humanitarioen hasierako azterketa bat egin zen, eta beharrezko koordinazio-lanak planteatu ziren. Oraingoz, funtsean, lankidetzaren eremuko langileen esku-hartzeak dira.*

*EUPFak, horrelako egoeretan beti egiten duen bezala, AECIDekin koordinatuta har daitezkeen neurrien zerbitzura jarri da, eta horien alde agertu da. Era berean, informazioa gure herrialdeko lurralte osora toki-erakundeen bidez iristeko duen gaitasuna erakutsi du, baita tokiko gobernuie laguntzeko egiten diren deialdietan duen implikazioa ere. FEMP izango da udalei, aldundiei, kontseilariei eta kabildoei informazio zuzena emateko bidea, horrelako hondamendietan beti egoten den tokiko gobernuen elkartasuna gauzatzen laguntzeko.*

*Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak, Espainiako toki-erakundeen ordezkarri gisa, honako erakunde-adierazpen hau erabaki du:*

1. Turkiako eta Siriako biztanleei gure elkartasun eta atxikimendu guztia helarazten diegu, baita lurrikarak kaltetu dituen pertsona guztiei ere, eta bi nazionalitateetako gure herrialdean bizi direnei ere zabaltzen diegu.
2. Lurrikaren ondorio latzak arintzeko herritarrei laguntzeko ekimenekin bat egiten dugu.
3. Espainiako Gobernuaren esku jartzen gara, gure baliabide guztiekin, edozein motatako jarduera humanitariotan laguntzeko, Europar Batasunak aktibatutako lagunza-mekanismoaren esparruan.

## **8.- ERROIBARKO GAZTEEN PARTAIDETZA PROIEKTUARENTZAKO DIRULAGUNTZA ESKATZEA ONARTZEA**

Alkateak hartu du hitza eta Artelanek aurkeztutako proiektuaren berri eman du. Batzordean ere ikusi da, onartzea proposatu du baita herritarren partaidetzarako deialdiko laguntzak eskatzea ere. 2023an egin beharreko proiekta da. Remiro zinegotziak hitza hartu du eta esan du batzordean gainetik hitz egin zela gaiaz eta alkateak esan zuela Auritzen antzeko zerbait egin dela eta gazteen artean harrea ona izan duela eta galdetu du gure ibarrean gazteei galdetu zaien. Alkateak erantzun du, alde batetik, gaia batzordean sartu behar zuela, eta, bestetik, hitz egin duela Aurizko batzuekin eta kontent daudela esan diotela, ibarreko gazte batzuekin ere mintzatu dela baina, dena den, gaia interesgarria iruditzen zaiola lantzeko. Nuño zinegotziak dio proiekta aurrera eramateko denbora gutxi dagoela iruditzen zaiola.

Remiro zinegotziak adierazi du egutegia anbiziotsua iruditzen zaiola eta gauzatzeko oso denbora gutxi dagoela; izan ere, gure bailarak herri bat baino gehiago du eta tartean uda dago. % 80k diruz laguntzen dute eta ongi egin behar dela uste dute, bestela ez baita baliagarria izango. Ez du zalantzan jartzen teknikak ondo egingo duenik, baizik eta zer epetan egin behar den dirulaguntza eskuratzeko.

Aho batez erabaki da:

1.- ERROIBARKO GAZTEEKIN PARTE HARTZEKO PROZESUA proiektua onartzea, Toki Garapenean, Herritarren Partaidetzan eta Ikerketa Sozialean espezializatutako ARTELAN aholkularitza-enpresari enkargatuta.

2.- Deialdiko laguntzak eskatzea Nafarroako Foru Komunitatean herritarren parte-hartzea sustatzeko proiektuak garatzen dituzten toki entitateei.

## **9.- AZIENDA MARKEN DATAK**

Garralda alkateak hitza hartu du eta proposatu du Sorogaingo marka maiatzaren 13an eta Urepelekoa maiatzaren 27an egitea. Beste aldetik ordenantzaren aldaketa hurrengo bilkurarako utziko da. Remiro zinegotziak hitza hartu du eta galdeku du herri aprobetxamenduen ordenantzaren aldaketa apirileko bilkura arruntean edo lehenago onartuko den. Alkateak erantzun du aurrekontuak eta ordenantza onartzeko bilkura berezia egin nahi duela.

Aho batez erabaki da marken datak onartzea, Sorogaingoa maiatzaren 13an eta Urepelekoa maiatzaren 27an.

## **10.- DESFIBRILADOREAK-KUDEAKETA ETA MANTENTZEA**

Alkateak Ekisoain zinegotziari eman dio hitza eta horrek jakinarazi du, kontzejuetako ordezkariekin desfibriladoreei eta horien mantentzeari buruz hitz egiteko izandako bileraren ondoren, honako hau erabaki dela aho batez:

1º.- Erroibarko Udalak baditu 11 desfibriladore semiautomatikoak (DESA) (10 2017tik eta 1 2022tik) udalerriko kontzejuetan:

1. Aintzioa. Elizako atarian.
2. Ardaitz. Elizako atarian.
3. Aurizberri. Mediku konsultategian.
4. Bizkarreta-Gerendia. Frontoian.
5. Erro. Mediku konsultategian.
6. Esnotz. Elizako atarian.

7. Lintzoain. Frontoian.
8. Loizu. Elizako atarian.
9. Mezkiritz. Frontoian.
10. Orondritz. Elizako atarian.
11. Zilbeti. Elizako atarian.

Aparatuen funtzionamendu egokia bermatzeko, enpresa espezializatu baten zerbitzuak kontratatuko dira urtero, eta Erroibarko Udalak hartuko du bere gain piezen eta/edo baterien zerbitzuaren eta ordezko piezen kostua, behar izanez gero.

Kontzejuek DESA aparatuak erabiltzeko ikastaroen kostua bere gain hartuko dute (hasierakoak eta birtziklaiakoak), bi urtean behi egin behar baitira (6/2019 Foru Dekretua, 7. Art.). Formazio ikastaroen antolaketa Erroibarko Udalaren ardura izanen da eta bi urtean behin eginen dira, urte bakoitietan. Erabiltzaile berrientzako hasierako formazioa antolatu behar da eta birtziklaia hasierako ikastaroa egin dutenentzat.

Urteko mantentze-lanez arduratzen den enpresa espezializatuak gomendatzen du aparatu bakoitzari aldizkako test bat egitea, DESA aparatuuek bateria izan dezaten eta operatibo egon daitezen aztertzeko.

Test horiek Erroibarko Udaleko langileek egingo dituzte lau hilean behin, eta, egiten den bakoitzean, fitxa bat beteko da, testaren data eta dena zuzen dagoen adieraziz. Akatsik izanez gero, mantentze-lanez arduratzen den enpresari berehala jakinaraziko zaio, langile teknikoek ahalik eta lasterren konpondu ahal izan dezaten aparatuaren akatsa, eta berriro martxan egon dadin.

Remiro zinegotziak hartu du hitza, eta proposatu du proposamen hori kontzeju guztiak sinatzea, hitzarmen moduko bat balitz bezala, bi aldeentzako konpromisoa egon dadin. Guztiak ados daude.

Gai-zerrendatik kanpo, Erroibarko egunaren data aztertzea proposatu da. Guztiak ados daude puntu hau jorratzearekin eta uztailaren 16a izatea proposatu da. Aho batez erabaki da Erroibarko Eguna uztailaren 16an ospatzea.

## **11.- BESTERIK**

Garralda alkateak hitza hartu du eta honako informazioa eman du:

### **Berdintasun teknikaria**

Alkateak jakinarazi du datorren astean, hilaren 22an, 19:00etan, bilera bat egingo dela Ariben, eskualdeko berdintasun agente bat kontratatzeko aukerari buruz hitz egiteko. Bileran ikusiko da zenbat udal dauden ados baita gaiari forma emateko modua ere. Korporazio osoa dago gonbidatuta Remiro zinegotzi andreak galdu du zer jarrera eramango duen Udalak bilera horretara, eta alkateak erantzun du, printzipioz, jarrera atxekitzearena dela, nola kudeatuko den ikusi behar dela, bilerara hitz egitera joango dela. Oraindik ez dakigu zein udalek atxikiko duten, baina Luzaidek, Orreagak eta Auritzek ezetz esan dute, eta garrantzitsua da, zerbitzuaren kostua ez baita berdina izango denak edo batzuk bakarrik sartzen badira, eta, beraz, oinarri horretatik aurrera lanean hasi beharko litzateke. Remiro zinegotzi andreak adierazi du hilaren 22ko bilera garrantzitsua dela, laguntzen deialdia martxoaren 2an amaitzen delako, eta helburua laguntza horiek jasotzeko aukera izateko akordio bat lortzea delako.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Pirinioko Planaren laguntzen deialdia**

Alkateak jakinarazi du, udalbatzako kideei azaldu zien bezala, Esnozko pistaren proiektuaren idazketa aurkeztu dela eta, Luzaide, Orreaga eta Aurizko udalekin lankidetzan, Donejakue Bidearen digitalizazio-proiektua, aurreko urtean aurkeztua. Gainera, Mezkirizko kontzejuak, Orreagako Udalarekin elkarlanean, "Etxe konektatuak" proiektua aurkeztu du.

Nuño zinegotziak jakinarazi du Auñamendi Zerbitzu Mankomunitateak 60 urtetik gorakoentzako guneak dinamizatzeko proiektu bat aurkeztu duela. Jarraipeneko proiektua da, eta iaz ere oso puntuazio ona lortu zuen, pertsona eta herri askori eragiten dien proiektua baita. Proiektuak bi helburu ditu: bata, mankomunitateko bi teknikarirekin talde iraunkor bat sortzea, 60 urtetik gorakoentzako jarduerak dinamizatu eta koordinatzeko, eta, bestea, batez ere Erroibarren, kirol-jarduerak antolatzen dituen jenderik gabe geratu baita, proiektuaren bidez aurrera eramatea. Auritzeko Udalak espazio bat utzi du horiek egin ahal izateko. Arazoa da hau urtebeterako bakarrik dela eta gerorako formulak pentsatu beharko direla. Aurtzen, nolanahi ere, hamar bat laguneko talde egonkor bat sortu nahi da eta datorren urterako jarduerak antolatuta utzi, zeren eta proiektua urriaren 31rako amaitu beharko baita.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Udalaren ehiza barrutia**

Alkateak jakinarazi du, Ingurumen Departamentuko Ehiza Atalaren iradokizunez, eskatu dela Jaurerriak eta bi Iurzati pribatu Udalaren barrutian sartzeko. Ehizarako uxaldiak eskatu dira egiten ari diren kalteengatik, eta gaia ehiztarien elkarrekin lantzen ari dira; hala ere, bi elkarreka ados egotea eskatzen da. Remiro zinegotziak galdu du noiz egin diren bilera horiek eta alkateak erantzun du kontuak aurkezteko eta uztaiak banatzeko egindako bileran gaiaz hitz egin zela. Ehiza Antolatzeko Plana aldatuko da eta lur horiek sartuko dira eta nahiz eta hitzarmena bukatu, ez dio ehizari eragingo. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Kintoko Mankomunitatea**

Alkateak jakinarazi du dagoeneko Kinto Mankomunitateko lehendakaritza hartu dela eta lan handia izango dela; izan ere, mendiaz gain, aurten oilagorren eta usategien enkanteak prestatuko dira, aurrekontuez gain, eta abar, eta dena hauteskundeen aurretik eginda utzi nahi da. Joan den urteko denboraldia oso ona izan zen, gehienbat usoei dagokienez, eta badirudi jendea interesatua dagoela hurrengo denboraldirako. Kintok sarbide honak ditu eta hurbil dago Iruñetik eta Gipuzkoatik.

Udalbatza jakitun da.

<b><i>Erroko</i></b>	<b><i>guraso</i></b>	<b><i>elkarreka</i></b>
Bidaurreta zinegotzi andreak hartu du hitza eta Erroko Guraso Elkartearekin jantokiei buruz hitz egiteko izandako bileraren berri eman du. Gu Pirinioetako teknikariak Proiektu Estrategikoak prestatzen ari den proposamena aurkeztu zuen, baina ez dakigu ziur aurrera egingo duen. Gurasoek eguneko 1,75 euro ordaindu beharko lukete bazkariagatik. Aurkezpen harten alkateak protesta egin zuen, hasieran gastu guztia bere gain hartzeko agindua eman zutelako, eta orain ez da horrela. Azapenaren ondoren, gurasoak kontuak egiten eta haien artean hitz egiten geratu ziren.		

Guraso Elkarteari eskatuko zaio azkeneko lau urtetako fakturak aurkeztea. Bestalde, Aurizberriko Guraso Elkarteari esango zaio, hala nahi izanez gero, jangela sartzeko ekainean, Erroko Guraso Elkarteak egiten duen bezala, konparaziozko bidegabeketariak egon ez dadin.

Remiro zinegotziak 18.000,00 euroko ebazpenarekin zer egin behar den galdu du eta alkateak erantzun du Guraso Elkartearen konpromisoa dela gainerako %40ari uko egitea. Dena den, oraindik ez diote deitu eta erantzuna jaso arte itxaron beharko da. Behin erantzuna jasota ebazpena zuzenduko da edo ikusiko da zein izanen den konponbidea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

2023ko aurrekontuez hitz egiteko batzordea hilaren 23an, ostegunean, 12:00etan egitea adostu da. Remiro zinegotziak galdu du aldez aurretik dokumentazioa izanen duten eta alkateak dio saiatuko dela.

Remiro zinegotziak honako informazioa eman du:

### **NABI dirulaguntzak**

Jakinari da NABIko dirulaguntzak jasotzeko jarduerak otsailean bukatuko direla eta egindakoa justifikatzeko epea otsailaren 28an bukatuko dela. Martxoaren 15ean eta 22an egingo den prestakuntza-jarduera bat martxoaren 15ean eta 22an eginen da, hiru orduko iraupena izango du, eta goizeko ordutegian emango dira, 11:00etatik 14:00etara. Udaleko eta kontzejuetako langile guztientzat eta udalbatzako eta kontzejuetako kideentzat da.

Remiro zinegotziak galdu du jarduteko protokolo originala aurkitu den. Ez badago Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari kopia eskatu behar zaio, sinadura guztiak dituena, dokumentu hori udaletxean eskura egon behar duelako. Nuño zinegotziak kopia eskatu eta udaletxera ekarriko du.

Alkatea gaiaz arduratzen den mahaian parte hartu zuen, Luzaide, Orreaga, Auritz eta Aezkoako ordezkariekin batera, bai eta Auñamendi Mankomunitateko, Osasun Etxeko, Guardia Zibileko eta abarreko teknikariekin ere; bertan arazoari buruz eta nola jokatu behar den eztabaidatzen aritu ziren. Mankomunitatearen txosten batek indarkeria fisiko, psikologiko eta ekonomikoren bat jasan duten emakumeen ehunekoa jasotzen du. Remiro zinegotziak aipatu du bileran ordezkari politiko gutxi izan zirela eta bertaratzea derrigorrezkoa zen galdu du eta alkateak erantzun du uste duela baietz.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Agenda 2030**

Remiro zinegotzi andreak, 2030 Agendari eta online bertaratutako bilerari dagokienez – ondoren, txosten bat bidali zuen ekintza-planari lotutako laguntzen deialdirako ideiak edo proposamenak eskatuz –, galdu du ea zalantzak dagoen 2021eko agendatik 2030eko agendara igarotzeko prozesuari buruz, eta, laguntzen gaiari dagokionez, alkateak azaldu du harremanetan jarri zela Cedernako teknikariarekin eta Sorogaingo aterpetxerako irisgarritasuna aurkeztu zela. Agendari lotuta dago, nolabait, NELS sareko laguntzen gaia ere. Idazkariarekin hitz egin zuen gai honi buruz eta, jakin nahi du Nels Sarearen batzarrera udaleko zein ordezkari joan zen, Santiago-Iratzi Bidea 21 Agendaren ordezkari gisa. Idazkariak erantzun du Aurizko alkateak ezin zela joan jakinari ziola. Garralda alkatearekin hitz egin zuen, eta Esteribarko Udalarekin hitz egitekotan geratu ziren, alkatea azken aldian bezala joango ote zen jakiteko. Alkatea ez zegoenez, bere posta bidali zidaten berarekin komunikatzeko, gaiari buruz galdetuz

idatzi nion, baina ez nuen erantzunik jaso, eta hor geratu zen gaia. Remiro zinegotzi andreak azaldu du ez duela zentzurik Esteribarko Udala kontuan hartzea, haien beren agenda onartuko dutelako, eta gai hori daramaten teknikariekin dei egin diente erakundeei datorren urteko deialdira aurkezteko lan-prozesu bat irekitzera, Erroibar, Auritz, Orreaga, Luzaide eta Aezkoa ardatzarekin beste 2030 agenda bat sortzeko. Denetan, nahi izanez gero behintzat, korporazio berria sartzen denean, lantzen hasi behar da, deialdiak urtarrilean ateratzen baitira. Kontua da gai honetan benetan interesa izanez gero, denboraz landu behar dela, bestela ez du zentzurik.

Nuño zinegotzi andreak Aurizberriko kontzejuko presidenteak, Landabere jaunak, eskatu duen bilerari buruz galdeku du. Alkateak erantzun du Orreaga, Auritz eta Erroibarko udalekin, talde bakoitzeko zinegotziekin, bilera bat egitea eskatu duela, Donejakue Bidearen antzeko digitalizazioko proiektu turistiko bat aurkezteko aukerari buruz hitz egiteko, baina askoz ere osatuagoa, aterako dela dirudien lagunza-deialdi baterako. Dena den oraindik ez da datarik zehaztu, baina jakin bezain laster informazioa emango da.

Galdeku nahi du baita ere taxilarien gaiari buruz, zertan den lizenziaren afera, etab., ea elkarrekin ari diren edo bakoitza bere aldetik. Alkateak erantzun du taxilariek proposatu zutela eskualde mailako eremua egitea, Luzaide, Orreaga, Auritz, Erroibar eta Garralda hartuta. Arazo bat dago Orreaga eta Iruñetik datozen taxilariekin. 2012an proposamen egin zen, baina taxilariek beraiek gelditu zuten. Orain, inguruko taxilari berrikin, berriro planteatu dute, uste baitute horrela konpon ditzaketela Orreagarekin zehazki planteatzen zaizkien arazoetako batzuk. Eciolaza zinegotzi jaunak hartu du hitza, eta azaldu du Erroko taxilari batek Erroibarko edozein bizilagun har dezakeela eta Iruñera eraman ditzakeela, baina ezin duela egin Iruñeko aireportura joan eta pertsona hori Orreagara eraman, Errorra eraman ahal izango duela, baina ez Orreagaraino. Bideliburu bat izan behar dute. Adibidez, Erroko taxi-gidariak ezin du Orreagara doan erromes bat jaso eta haraino eraman. Eremu horrekin, ordea, lan-aukerak handiagoak dira, Orreaga bere ibilbideetan sartuko delako, eta ez bakarrik Orreaga, baizik eta area osatzen duten udalerrietako taxilari guztiak udalerri guztietai lan egin ahal izango dutelako. Nuño zinegotzi andreak galdeku du ea eskaera hori inguruko taxilari guztiak sinatu duten. Idazkariak baietz erantzun du, eta horren kopia bidaliko diela.

Gai horri dagokionez, Remiro zinegotzi andreak esan du lizenziak udalarenak direla, eta horiek ateratzeko baldintza batzuk eskatzen direla, eta lizenzia horiek eskualdatzen direnean, baldintza horiek betetzen jarraitu behar den galdeku du. Idazkariak erantzun du taxilarien gai guztia Taxien Foru Legean araututa dagoela, eskualdaketa barne, eta legeak kasu horietarako ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen badira, ezin dela eragotzi eskualdatze hori, eta, zehazki, bere garaian alkatetza honek emandako eskualdaketa baimentzeko ebazpenean, legeak hori gauzatu ahal izateko eskatzen

dituen baldintza guztiak jasotzen zirela. Gaia aztertzeko taxilariekin eta udalekin bilera bat antolatzea komenigarritzat jo du.

## **12.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Remiro zinegotzi andreak hartu du hitza, eta, azken bilkurako akta berrikusita, 7. puntuau, barra erauntsiari buruzkoan, gaia hurrengo bilkurarako uztea erabaki da, eta bilkura honetan ez dela sartu ikusi du. Idazkariak erantzun du aurrekontuak egin arte eta obrak egitea posible zen edo ez ikusi arte ez zela komenigarria gai hori sartzea, eta, beraz, gaia aurrekontuen bileran aztertuko dela.

2022ko kontu-batzordea noiz egitea aurreikusten den galderari dagokionez, erantzun da ez dakigula, baina legegintzaldia amaitu baino lehen egitea espero da.

Ikasteko laguntzen ordenantzari dagokionez (aurreko bileran ere hitz egin zen aldaketaren bat egitea komeni ote zen, bereziki euskararen gaiari dagokionez), Remiro zinegotzi andreak galdetu du ea bideragarria ikusten den orain lantzea edo hurrengo korporaziorako uztea. Udalbatzako kideek erantzun dute apirilean ikusiko dela horretan lan egin daitekeen.

Kultura eta kirol ordenantzaren batzorde urgenteari dagokionez, batzordea martxoaren 3an, ostirala, egitea erabaki da, 12:00etan, goizez bada, eta 17:00etan arratsaldez bada.

Mezkirizko goiko ur-horniduraren proiektuari dagokionez, eta txosten zehatza prestatu behar zela, idazkariak erantzun du bi gauza desberdin direla. Alkateak hartu du hitza, eta erantzun du goiko ur-hornidurari eta uraren analisiei buruzko txostenari dagokionez, ingeniariek oraindik ezin izan duela elurragatik egin, baina horretan ari da, eta prest dagoena obraren kostuaren balorazioa dela, 120.000 eurokoa. Kontagailuak digitalizatzeko laguntzak ere aipatu ziren, baina oraindik ez dira atera. Eta Donejakue Bidearen proiektuari eta horretarako aurreikusten ziren laguntzei dagokienez, bilkura honetan aipatu denez, uste dut ez direla aterako. Eciolaza zinegotzi jaunak erantzun du hala dela, deialdiak ez baitu zoladurarekin lotutako horrelako jarduerarik jasotzen.

Ekisoain zinegotzi andreak, Bizkarreta-Gerendiaingo birgaitzeko etxebizitzei dagokienez, eta bi etxebizitza proposatzeaz eta kontzejuak laguntza gehiago eskatu izanaz gain zerbait gehiago hitz egin den galdetu du, eta ezetz erantzun zaio.

Era berean, galdetu du ea informazio gehiago dagoen eolikoen proiektuaz, eta alkateak ezetz erantzun du. Elurrari dagokionez, balorazio bat egin nahi du; izan ere, bere ustez, Udaleko zerbitzuek azken elurtean ez dute oso ondo funtzionatu. Izotz anitz egin du, eta gatz banaketa hobeto kudeatu zitekeen, traktore bakarra ote zegoen galdetuz. Badaki gorabeherak egon daitezkeela, baina jakinarazi edo beste irtenbide batzuk eman beharko lirateke. Gorabeherak ere kontuan hartu behar dira. Alkateak azaldu du

gatzaren gaia ez dela horren erraza konpontzen, ez dagoelako horrela, eta edonork ez dizu saltzen. Lakitara joan ohi da eta guri ematea onartzen dute, baina zaila da Remiro zinegotzi andreak hartu du hitza, eta esan du elurraren gaia esleitu zenean, hiru laguneko talde bat agertu zela, eta Aurizberri alde batera utzi zutela. Osoko bilkura harten Mezkritzeko norbait aipatu zen, eta azkenean beste pertsona bat arduratu da lan horretaz; izan ere, lehiaketa esleitu zen bezala, uste du Aurizberrik ez duela behar bezalako arretarik jaso. Alkateak erantzun du hala dela, Mezkirizko bizilaguna azkenean ez zelako arduratu eta Aurizko pertsona bati deitu behar izan ziotelako. Elurte handia izan da eta zaila izan da egoera konpontzea. Eciolaza zinegotzi jaunak gaineratu du, bere ustez, Aurizberrin ez dela gaizki egin, arazoak sortu diren arren. Remiro zinegotzi andreak, horren harira eta korporazioari emandako informazioaren harira, eskertuko zukeen, beste behin ere, zinegotzi gisa, gai horiei buruz egunkarietara bidali zen prentsa-oharra jakinarazi izana, gutxienez gauza horien berri izatea, bai eta Sorogaingo sarbidearen itxiera ere, alkateak horren berri eman baitzezakeen. Alkateak erantzun du egin zezakeela, baina Sorogaingoa ez zela berak eskatuta izan, trafiko-agindua baizik.

Ekisoain zinegotziak trinketeaz zerbait dakigu galdetu du, entzun baitu apirilerako konponduta egonen dela. Eciolaza zinegotzi jaunak erantzun du ez dela horrela, Kirol Departamentuan berari eta Garraldako alkateari esan zitzaiela beren aurrekontuetan trinketerako partida egongo zela, baina besterik ez. Obra Garraldako frontoia trinketean egokitzean datza, eta hori egitea erraza da eta ez aurrekontu handikoa, 200.000 euro inguru.

Remiro zinegotzi andreak esan du aurreko osoko bilkuran hitz egin zela Sorogain-Aurizberri eta Esnotz-Lusarreta errepideen gaia dela-eta errepide-sarearekin izandako bileraz, memoria bat prestatzeko eta kontzejuekin hitz egiteko beharraz, eta horri buruz zerbait egin den galdetu du. Alkateak erantzun du Aurizberriko eta Esnozko kontzejuburuekin hitz egin duela, ez dela memoriarik prestatu, baina kontzejuak ados daudela badakiela.

Mezkritzeko urengatiko zehapen-espedienteari dagokionez, Remiro andreak gaia nola dagoen galdetu du. Idazkariak alegazioak aurkeztu zirela erantzun du, eta alegazio horiek noiz ebatzik zain daude.

Galdetu du Eskola Kontseiluaren bilera egiten denean akta egiten den, eta alkateak erantzun du akta zuzendariak egin behar duela eta galdetuko diola eta eskatuko diola. Ardaizko Iurzatiengoa kontzentrazioari dagokionez, galdetu du ea zerbait egin den, eta alkateak erantzun du ez dela ezer egin. Gurbizarren egoerari buruz galdetu du eta alkateak erantzun du zigor-espedientea prestatu zaiela bai betearazleari bai Nafarroako Gobernuari, baina Nafarroako Gobernuak 6.000 euroko zehapen-espedientea ireki diola partikularrari. Idazkariaren ustez, behin Gobernuak jardun duenean, ulertzten du ez dela beharrezkoa haien aurkako espedientea irekitzea.

Azken saioan, Orreagako gatazkako monumentuaren gaia aztergaien zerrendan sartu gabeko puntu gisa aztertu zen, eta 500 euro jartzea erabaki zen, eta Remiro zinegotzi andreak galdeku du ea ordainduta dauden. Idazkariak erantzun du ebazpena eginda dagoela, baina lagunza ordaintzeko kontu-zenbakia noiz bidaliko zain dagoela.

Azkenik, obra-lizentziei dagokienez, Remiro zinegotzi andreak esan du aurreko bilkuran esan zitzaiola guztiengana ebazpena egiten zela, baina, adibidez, bizilagun batek ordaindu behar duen ondasun baten zenbateko jasotzen duenean, ez dago alkatetzan-ebazpenik, hori da obra txiki batzuk beste modu batean izapidetzen direlako, ebazpena agertzen ez delako. Idazkariak erantzun du ezin dela lizentzia emateko ebazpenik agertu, ebazpen horiek kontzejuek ematen dituztelako. Udalak aldeko edo kontrako txostena egiten du, eta kontzejuari ematen dio, hark ebatz dezan.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 20:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.